# Hoy escribe

Paulo Agirrebaltzategi (*)

# Kulturaren batzarrea eta batzarrearen kulturan

Esku artean daukat liburu txiki bat, *Euskadi: Herri Batzarrea* izenekoa, 1978an argitaratua. Sei urte besterik ez dira igaro; baina zein urrutikoak ematen duten urte haiek! Batzarre-mugimendua aski zabala eta sakona zen garai hartan. Gerora motelduz, makalduz, urrituz eta suntsituz joan da. Zergatik? Bi arrazoi funtsean: a) Hauteskunde "demokratikoen" izenean —kontuan izan demokraziak herriaren egintea adierazten duela berez— boterearen aulkitan eseri diren agintari berriak, edota erakunde ofizialetara uste osoz hurbildu direnak saiatu dira saiatu, botererik gabeko herriaren batzarreen indarra baztertzen eta itotzen; b) Seguruenik, herri-indarrak bidez erdi-galdurik gertatu dira, eta ez dute jakin batzarrearen mugimendua lantzen, bizkortzen eta sakontzen: nekea nagusitu da orduan.

Badirudi, ordea, urte batzutako itzulinguruaren etsipenak jota edo, batzarrea bere eskubideak eta lehentasuna galdatzen ari dela; hiru adibide bakarrik: EAJren azken aldiko krisian nabarmen gelditu da aparatuaren eta oinarriko batzarreen arteko tirabira; HB azken asteotan barneko gogoeta eta autokritika egiten ari da, eta besteren artean, oinarriko batzarreen lehntasuna aitortu eta horien indarra berritu beharra ikusi da nonbait; EKB (Euskal Kulturaren Batzarrea), urte haietan eratu nahian ibili zen euskal kulturako talde eta elkarte herritarren batzarrearen asmoa eta projektua suspertu eta bideratu nahian dabil, azken urteotako instituzionalismoaren liluraren eta etsipenaren ondoren, indar horien koordinazioa eta dinamika berria lortzeko bidea *batzarrea* delako, hain zuzen ere.

Hasieran aipatu dudan liburuak herri eta auzo-mailako batzarre-mugimendua aztertzen du, garai hartako Laudioko eta Oreretako batzarre-experientziak nabarmenduz bereziki. Batzarrearen filosifiak udal-politikarako eta beste mailatako politikarako balio duen bezala, ordea, lantegietarako eta sindikalismorako, eskola eta unibertsitaterako, erakunde herritar eta sozialetarako, erlijio-mundurako eta Elizarako, bai eta kultur talde, elkarte eta erakundetarako balio du.

Beste alorrak alde batera utzirik, hain zuzen, kulturaren alorreko batzarre-dinamikaz mintzatu nahi dugu bereziki hemen. Euskal kulturaren eta euskararen kinka honetan pil-pil dagoen arazoa dela uste dut. Krudwig-en azken liburuak nabarmenago jarri du oraindik puntu hau eztabaidatu eta argitu beharra: Zein bidetatik nahi dugu euskara eta euskal kultura, ez defenditu eta zaindu bakarrik, eta bai berreskuratu, normaldu eta horien garapen nazionala eta soziala bideratu?

Sistema politiko eta sozialekin erabat loturik egon gabe ere, horiekin zerikusi handia duten hiru filosofia modu daude, boterearen eta indar herritarren —bai eta kultur boterearen eta kultur indar herritarren— arteko harremana definitzen dutenak; hiru hitz hauetara bil genitzake: *Ordezkotza — Bitartekotza — Tartekotza.* Agian hirurek egiten diote dei, noizbehinka bederen, "demokraziari" —herriaren agінteari—; baina oso era ezberdinez aditzen da dei hori.

*Ordezkotza... eta komisarioak.* Herriaren indarra aitortzen dute boteredunek, eta horretaz baliatzen dira beren botereari eusteko eta hori zurikatzeko. Beren bizkarrean hartzen dute herriaren erantzukizuna: agintepekoen ordez *jartzen dira agintedunak. Berauek omen dakite herriaren interesak interpretatzen; horretarako daukate argia gorago ezarritako botereetatik; horiei eman behar die kontu. Beren komisarioak* dituzte herriarengana hurbiltzeko eta berorren interesak zeintzu diren erakusteko. Eta bide horietatik sartzen ez direnentzat dituzte beren "komisariak" ere... Herriak, berriz, buruzagien eta liderren eskuetan utzi behar du bere erantzukizuna. Ordezkotzaren "demokrazia" sustitutiboa eta "hierarkikoa" da. Mitina da horren apoteosia.

Giro horretan girotzen da kultura aristokratikoa, elitista eta indibidualista; kafetegiko solasaldietan edota literatur-zirkuluetan nahiz "kultur-lagun" bakartien geletan mamitzen den kultura. Goi-kulturaren mezulari horien ahotatik edo lumatik zabaltzen omen da herriarengana kulturazko mezua, hori kulturarako gauza den neurrian.

*Bitartekotza... eta komisioak.* Demokrazia formaleko agintedunen eta agintepekoen —boteredunen eta herriaren— arteko harremana eratzeko modua adierazten da hitz horren bidez. Tartean hauteskundeak jarri ohi dira, non herriak bere "bitartekoak" aukeratzen bait ditu, erakundeen eta herritarren arteko jokoa joka dezaten. Herriak ez du nonbait bere erantzukizuna inoren eskuetan uzten, baina bai delegatu, hauteskundeen arteko eperako. Agian nolabaiteko kritika eta protesta egiteko eskubidea gordetzen du bitarte horretan. *Komisioetan* — batzordetan— sakabanatzen da orduan agintedunen eta agintepekoen arteko lotura: batzorde iraunkorrak, batzorde exekutiboak, batzorde delegatuak, batzordeak... Agintedunen esku luzeak dira azkenean batzorde guzti horiek. Bitartekotzaren demokrazia delegatua eta errepresentatiboa deitzen zaio horri. Hauteskundeak dira horren gailurra eta formalismoa.

Jende guztientzako kultura eskaintzen du bitartekotzaren demokraziak: horretarako ditu telebista, liburu-azokak, zinema jaialdi "izartsuak", eurobistako kantaldiak... Egina, xehetua, gidatua eman behar omen zaio kultura herriari. *Herrikoia* behar du kulturak —besterik da *herritarra*—; saldu egin behar da kultura, eta horretarako kultur-publizitatearen sistemak landu.

*Tartekotza... eta batzarrea.* Herriak eta herritar bakoitzak bere arazoak konpontzeko eta bere interesak bideratzeko bere burua, bere lana, bere irudimena eta bere hitza "tartean" sartzen ditueneko sistema soziala eta politikoa da: norbera "tarteko" gertatzen eta sentitzen denekoa, edozein arazo aztertzean eta edonolako erabaki hartzen denean. Tartekotzaren sistema hori bideratzeko eta eratzeko izan ohi da, hain zuzen, *batzarrea.* Botererik gabekoen indarrak biltzea eta herritar bakoitza eta guztiak tarteko eta partekide izatea eskatzen du batzarrearen sistemak. Demokrazia partizipatiboa eta zuzenekoa izendatzen da hori. Batzarrea du bere oinarria, abiaburua eta muina; asmo eta bide horren formak besterik ez dira: Herri-batzarrea, batzarre iraunkorra, batzarre orokorra, tokiko batzarrea, batzarre sektoriala. "Asanblada" izan daiteke batzarrean itxurazko apoteosia; baina bai eta horren desitxuratzea ere.

Herriaren bizitzeko forma bezala ulertzen du kultura tartekotzaren demokraziak. Kultura elitista-indibidualistaren eta kultura populista-masiboaren aurka, kultura herritarra eta elkartekoa proposatzen du, non herritarrek, kultur talde, elkarte eta bazkunetan eraturik, beren irudimena eta sormena landuko eta hedatuko bait dute. Batzarre-kultura da hori, horretan bakarrik izango bait dira herritarrak beren kulturaren jabe. Textuinguru horretan eta helburu horren argitan gertatzen da, hain zuzen, garrantzizkoa Euskal Kulturaren Batzarrea. Batzarre-kulturak herri-kulturari buruzko gogoetara garamatza; baina horretaz hurrengoren batean ihardun beharko dugu.

Bere lilura eta itxaropena ditu batzarreak; baina bai eta bere etsipenak ere. *Asmo eta projektu* bat da batzarrea: maila guztietara, sektore orotara eta bizitza osora zabaltzekoa: norberaren eta guztien partehartzearen mistika piztea eskatzen du. *Lan-modua* da batzarrea: praktikoa eta eraginkorra bihurtu behar da, etsipena zabalduko ez badu; batzarrearen aszetika zaindu beharra dago. Batzarre-sistema ez da erosoa: bakoitzari eskatzen bait dio bere erantzukizunari erantzutea. *Erakunde modua* da, azkenik, batzarrea, erakundearen azpian erori nahi ez duena: bizitzaren dinamikak agindu behar du hor, eta ez aginteareh formalismoak.

Batzarrearen sistema suspertzeko, indartzeko eta sakontzeko garaian gaude euskal kulturaren munduan. Batzarrearen kultura eskatzen du horrek.

---

**(*) Euskal idazlea**

# Puntaren puntan

## prisioneros y prisioneros

Sin necesidad de indultos ni arrepentimientos pronto van a empezar a ir saliendo los responsables del 23-F. Ahora se anuncia la próxima salida del que fuera capitán de la Guardia Civil José Luis Abad que cumplía condena de cinco años. Se trata simplemente de aplicarles las leyes y reglamentaciones que rigen dentro del régimen carcelario: redención de condenas por el trabajo normal, aplicación de grados en caso de no tener faltas graves, libertad condicional al cumplirse las tres cuartas partes del tiempo etc. etc.

Esto, que es norma común en toda clase de prisiones y con todos los prisioneros sean de la clase que sea, parricidas, violadores o asaltantes de Congresos se rompe e incumple sin embargo sospechosamente cuando se trata de los presos políticos vascos.

Ahí no hay permisos, ni redenciones, ahí sólo se aplica el peso absoluto de una ley convertida más en fanática revancha que en aplicación objetiva de una justicia teóricamente imparcial.

¿Por qué regla de tres, entonces, se hace una excepción tan escandalosamente represiva con nuestros presos vascos? ¿Por qué hay prisioneros y prisioneros? ¿Será tal vez porque efectivamente estos presos son "distintos"?

Nos gustaría que, de una vez por todas, se admitiese esta peculiaridad tan distintiva. Que se reconociese la excepción de Herrera de la Mancha y su régimen brutalmente represivo. Que se explicase al Estado español y al mundo entero que aquí hay unos presos muy especiales, los vascos, a los que no contentos con que les castiguen y condenen tribunales también especiales, sufren la condena en unas condiciones totalmente distintas a los restantes presos y desde luego muchísimo más duras y restrictivas.

Nos gustaría que se dijese de una vez que en el Estado español hay prisioneros y prisioneros, y que los malditos, los castigados, los apestosos son los vascos.

J. ABIRANETA

# Hemeroteca

## e.t.a. y los franceses

*(José Luis Gutiérrez, en "Diario 16", 15-6-84)*

Nada se especificó sobre una de las cuestiones medulares, la expulsión de Francia de los "40 principales" de ETA, el casi medio centenar de terroristas con el más alto grado de peligrosidad, responsables asimismo de la dirección de la organización vasca.

El Gobierno español intentará que tales expulsiones se produzcan y sean canalizadas en buenas parte hacia Venezuela.

El beneficio político sería tan inmenso como inmediato. Y, desde luego, esas cifras que se han barajado de cien millones de pesetas como costo de la estancia de los etarras deportados a Panamá, además de no ser cierta, habría estado en cualquier caso muy bien utilizada. El pago de estas operaciones, dicho sea de paso, lo sufraga el Gobierno español, pero se realiza a través de complicados giros comerciales, considerando que casi todos los países iberoamericanos están fuertemente endeudados con España.

Queda, sin embargo, otro aspecto aún más importante que el meramente policial con respecto al problema terrorista, y que la ingenuidad histórica de José Barrionuevo no parece concederle la importancia que se merece. El tratamiento exclusivamente policial del fenómeno terrorista por muy eficaz que resulte no deja de ser una aplicación tópica a un mal que acredita tener raíces profundas. Mientras tales acciones diplomático-policiales se llevan a cabo, en el norte, se recrudecen alarmantemente los sarpullidos secesionistas. El senador Joseba Elósegui, del PNV, protagoniza el robo estrafalario de una ikurriña del Museo del Ejército de Madrid, y el también peneuvista Insausti hace profesión de fe independentista con la utópica vindicación de las "siete provincias vascas".

A juicio de Barrionuevo, estas cosas pueden resultar "molestas", pero no peligrosas si se aniquila a las bandas terroristas, o al menos se las neutraliza. ¿Cuánto tardaría un País Vasco esencialmente autodeterminista en iniciar nuevos hervores de violencia, de poner el espíritu colectivo y las ideas en acción?

## la ofensiva final contra e.t.a.

*(Antxon Sarasqueta, en "Lid", 15-6-84)*

La lista de doscientos refugiados vascos en Francia que Barrionuevo ha entregado a Deferre para que se acojan a medidas de gracia en España y abandonen cualquier relación con la lucha armada, es una maniobra que entra dentro de ese plan que permita reducir a ETA desde la colaboración hispano-gala a nivel administrativo, político y policial.

El clima de Francia y España en la cooperación antiterrorista, parece haber mejorado, y se debe a una decisión pactada directamente entre el presidente González y el presidente Mitterrand. Sin duda alguna, el Gobierno de González encuentra esta nueva disposición en París, porque las tensiones producidas como consecuencia de las actividades de ETA comenzaban a afectar seriamente a la política nacional francesa y a su crédito exterior.

## deferre en madrid

*(Pedro Altares, en "El Diario Vasco", 15-6-84)*

Por otro lado, algo parece que se avanza en el tema del terrorismo, la auténtica espada de Damocles que pende sobre nuestras cabezas.

La visita de hoy de Gastón Deferre a Madrid, si se cumplen algunas de las expectativas levantadas, pueden suponer un paso realmente cualitativo en su erradicación. Francia, al fin, parece comprender que lo que distingue el terrorismo etarra es precisamente la existencia de una frontera cerca de su territorio de acción, el famoso "santuario", que le pone a cubierto y en la impunidad. Eso no supone ninguna transferencia de responsabilidad a los franceses en el fenómeno de la violencia que, obviamente, tiene sus origenes a este lado de la frontera. Se trata, simplemente, de una constatación.




(El Alcazar)